

Zaharrena ala gazteena, zer da hobe?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Ba al daukazu anaia-arrebarik? Horien artean zenbatgarrena zara? Gauza bera al da anaia-arreba zaharra edo gaztea izatea? Jaiotza-hurrenkeraren inguruan hitz egingo dugu jarduera honetan.



1- Zaharrena ala gazteena

Bideoa ikusi aurretik, erantzun galderei:

- Zenbat anai-arreba dituzu? Zenbatgarrena zara zu?
- Zaharrena, gazteena ala bakarra izateak ba al du eraginik gure izaeran?

Bideoan, Olatz Berastegi Harremanak elkarteko kideari egindako elkarrizketatu duzu. Ikusi zer esan digun eta, ahal bada, esaldi bakar batekin erantzun galderei:



1. Harremanak elkartea sortzeko, zein alorretako profesionalak elkartu ziren?

.....

2. Zer jasotzen du lehenengo haurrak gurasoengandik?

.....

3. -Etxeko txikiak zer bizi izaten du?

.....

2- Zertan eragiten digu?

Jaiotza-hurrenkerak pertsona baten izaeran izan dezakeen zerikusiarri buruzko testua duzu hau. Irakurri, eta begiratu arretaz jaiotza-hurrenkeraren arabera aipatzen diren ezaugarriei.

Anai-arreba zaharrena edo gazteena izateak zertan eragiten digu?

Anai-arreba zaharrena edo gazteena izateak desberdin egiten gaitu? Askotan esaten da zaharrenak arduratsuak direla; eta gazteenei, berriz, helduak izatea gehiago kostatzen zaiela... Ez hori bakarrik, seme-alaba bakarrak mimatuak ote dira? Eta zer gertatzen da bikiakin?

Jaiotza-hurrenkerak, hau da, seme-alaba zaharrena, tartekoa ala gazteena izateak gure izaeran duen eraginari buruz hitz egin dugu Olatz Berastegi Harremanak elkarteko soziologo, sexologo eta psikoterapeutarekin.

Zaharretik gazteenera

Familia batera lehenengo, bigarren ala azkena iristeak zeresana izango du gure izateko moduan. Une horretan, gurasoek zerbait irudikatzen dute, ideia bat dute, eta hortik abiatuko dute umearen hezkuntza. “Lehenengoari anaiarreba gehiago izan ahala, heldua izatea egokituko zaio, eta bera izango da senideetan arduratsuen”, azaldu digu Berastegik. Aldi berean, hasieran, begi guztiak bere gain izango ditu, etxeko ume bakarra izango delako.



Txikienek, berriz, askatasun handiagoa izaten dute: “Gurasoek beste proiektio batzuk dituzte, euren bizitzan beste une bat bizi dutelako. Gehiago kostako zaie pertsona helduak izatea, eta askok ume izaten jarraituko dute adinez helduak izan arren”. Gainera, jaiotza hori familiarentzat azkenekoa izango da, ez baitute seme-alaba gehiago izango, eta horrek dolua eragingo die gurasoei. Egoera horrek ere zerikusia izango du seme-alaben izaeran.

Hiru senide edo gehiago dituzten familietan, tartekoek askotan pentsatzen dute inork ez diela jaramonik egiten. Berastegi ez dago ados: “Ez da egia. Hiru seme-alabako familietan, bigarrena noizbait txikiena izan da eta horrek abantailak ditu. Nik uste beren izaera eraikitzeke askatasun handia dutela eta hori nabaritzen da beren bizimoduan”.

Bikiak eta seme-alaba bakarrak

Bikiak momentu berean iristen dira edo hori uste dugu. Berastegik, ordea, ez digu horrelakorik esan: “Lehenengo bat jaiotzen da eta, ondoren, bestea. Gurasoek batengan eta bestearengan gauza desberdinak proiektatzen dituzte. Askotan, badirudi bien artean pertsona bat osatzen dutela: bat da arduratsua eta bestea ez; bat negartia eta bestea ez; bat sortzailea eta bestea ez hainbeste... Gurasoek adi egon behar dute, ez baitira pertsona bakarra eta bakoitzak bere espazioa eduki behar baitu. Horregatik, ikastetxe gehienetan, anai-arrebak ikasgela banatan egoten dira; norberak bere lekua izateko”.

Bestalde, seme edo alaba bakarrean pentsatzen dugunean, mimatua irudikatzen dugu, dena berarentzat da, baina ez ditugu beste alderdi batzuk ikusten: “Pribilegioez hitz egiten dugu, baina begirada guztiak berak jasotzen ditu, onerako eta txarrerako. Ezin du gurasoen asmoetatik ihes egin eta, edozein egoera kaskarren aurrean, ez du anai-arreben babesik izango. Azken batean, gurasoak sistema bat edo bloke bat dira eta senideak beste bat. Gogorra da senideen babesik ez izatea”, adierazi digu Berastegik.

Lehen eta orain

Garai batean zortzi edo hamar seme-alaba izaten zituzten eta, hala ere, zaharrenaren eta txikienaren rolak mantentzen zirela kontatu digu Berastegik: “Zailena erdiko senideak nolakoak diren identifikatzea da, asko baitaude zaharrenaren eta gazteenaren artean. Hala ere, ziur horiek ere uste zutela ez zietela kasurik egiten”. Gurasoek orduan ere bazituzten ilusio batzuk, beraiekin zer egin nahi zuten pentsatzen zuten, eta hori ez da aldatu: “Gurasoek nahi dutenaren eta seme-alabek nahi dutenaren artean beti dago talka bat, eta hori zehazten joaten da denborarekin, ez baita zerbait txarra”.



Guraso askoren ustea da seme-alabak modu berean tratatzen dituztela, eta zentzu batean hala dela esan digu Berastegik: “Otorduak egiteko ordutegiak, arauak, balioak, hezkuntza... Baina bizitzako momentu desberdinetan izango dituzte haurrak eta horrek seme-alaba bakoitzarekin duten harremana baldintzatuko du. Ona da horretaz jabetzea, eta onartzea pertsona bakoitzak emozio desberdinak sortzen dizkigula”. Gurasoek, senitartekoek eta irakasleek hartu behar dute hori kontuan. “Nik, adibidez, nire lehenengo alabarekin denbora gehiago neukan, eta alaba bakarra

zen momentu hartan. Bigarrenarekin, aldiz, lehenengo zegoen, bikote-harremana desberdina zen, bizitzako beste momentu batean nengoen...”.

Jaiotza-hurrenkeraz gain, sexuak, anai-arrebekin dugun adin-tarteak edo familiara zer momentu sozial, ekonomiko eta emozionalean iristen garen, horrek guztiak badu zerikusia jaiotza-hurrenkeraz ez delako eragina duen aldagai bakarria”. Bizitzan ere, denok ez dugu jarrera bera hartzen gertaera beraren aurrean, "adibidez, norbait hiltzen denean badakigu zerbait mingarria dela; baina denoi berdin eragiten digu? Ez".

Seme-alaba zaharrena, gazteena, tartekoa, bikia ala bakarria izateak desberdin egingo gaitu. Zerrendatu testuan irakurri duzunaren arabera egoera bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren:

1. EZAUGARRIA

- a) Inork ez die jaramonik egiten
- b) Mimatua
- c) Heldutasunera azkar iritsiko da
- d) Askatasun handiagoa
- e) Bien artean pertsona bakarraren ezaugarriak banatzen dituzte

2. EZAUGARRIA

- a) Bakoitzari bere espazioa eman behar zaio
- b) Kostako zaio heldu izatea
- c) Ezin gurasoen asmoetatik ihes egin
- d) Arduratsua
- e) Noizbait txikienaren abantailak izan ditu

3. EZAUGARRIA

- a) Beren izaera eraikitzeke askatasun handia
- b) Gurasoek dolua, azkena izango delako
- c) Hasieran begi guztiak bere gain
- d) Gurasoek gauza desberdinak proiektatu bakoitzarengan
- e) Ez du anai-arreben babesik izango

Anaia-arreba	1. Ezaugarria	2. Ezaugarria	3. Ezaugarria
Zaharrena			
Gazteena			
Tartekoa			
Bikia			
Bakarra			

3- Abantailak eta desabantailak

Testuan irakurritako baieztapenekin bat zatoz? Zure familia eta bizipenak kontuan hartuta, zein abantaila eta desabantaila ikusten dituzu honako kasu hauetan?

1. Senide ugari izatea
2. Sexu bereko senideak izatea
3. Adin-tarte handia edo txikia izatea
4. Senide bakarra izatea

Abantailak	Desabantailak



ERANTZUNAK

1- Zaharrena ala gazteena

-Harremanak elkarrekin sortzeko, zein alorretako profesionalak elkartu ziren?
Psikoterapiako, psikologiako eta sexologiako profesionalak elkartu ziren.

-Zer jasotzen du lehenengo haurrak gurasoengandik? **Proiektzioak jasotzen ditu; bera jaio aurretik dituzten espektatibak.**

-Etxeko txikiak zer bizi izaten du? **Azkena izatearen dolua, eta gehiago kostatzen zaio heldutasunera iristea.**

2- Zertan eragiten digu?

Anaia-arreba	1. Ezaugarria	2. Ezaugarria	3. Ezaugarria
Zaharrena	C	D	C
Gazteena	D	B	B
Tartekoa	A	E	A
Bikia	E	A	D
Bakarra	D	C	E